BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4246

AGINDUA, 2013ko irailaren 9koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Fundación Agirre Lehendakaria Fundazioa» fundazioaren eratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Agirre Lehendakaria Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko maiatzaren 31n Herri Administrazio eta Justizia Sailera eskabide bat iritsi zen, non eskatzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko «Fundación Agirre Lehendakaria Fundazioa» fundazioaren eratzea. Fundazio hori honako hauek guztiek eratu dute: Juan José Ibarretxe Markuartu, Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain, Francisco Javier Chalbaud Rodríguez, Joseba Azkarraga Rodero,Sabino Arrieta Heras, Pablo Allende Villanueva, Francisco Javier Caballero Harriet, Pedro Miguel Echenique Landiribar, M.ª Carmen Gloria Aguirre Zabala, M.ª Josefa de Muñoa Ganuza, Uxune Retolaza Ereño, Gorka Espiau Idoyaga, Asier Guezuraga Ugalde, Amaia Aguirre Muñoa, Pedro M.ª Arrieta Heras, Iñaki Andoni Azua Mendia, Ander Retolaza Ereño, Jon Imanol Azua Mendia, Alfredo Julio García Alonso, Iñigo Aguirre Aranzabal, Joseba Jaureguizar Bilbao, Iciar Langarica Bayona, Idoia Arrieta Langarica, José Ignacio Arrieta Heras, Baltasar Errazti Navarro, Xabier De Irala Estévez, Sabin Koldobika Azua Mendia, Francisco Javier Aguirre Arizmendi, Iñaki Joseba Patirki Aguirre Arizmendi, Aitor Aguirre Muñoa, Jesús M.ª Peña Martinez, Juan Carlos Ercoreca Bilbao, José Javier Barcala Zumelzu, Alberto García Erauzkin, Joseba Bengoetxea García, Xabier Morales Quintana, José Luis Larrea Jiménez de Vicuña, Miren Ainhoa Mendibelzua Madariaga, Alan Xabier Mendibelzua Madariaga y Jon Iñaki Alzaga Etxeita. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion. Halaber, 2013ko irailaren 6an, beste agiri osagarri batzuk iritsi ziren erregistrora, eta administrazio-espedienteari erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.– Fundazioaren helburuak zilegiak eta interes orokorrekoak zirela egiaztatzeko bildu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoak fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2013ko uztailaren 18an.

Hirugarrena.– Honako hauek dira fundazioaren helburuak, estatutuen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«Mundu mailan Euskal Herriaren presentzia proiektatzea, eta euskal gizarteari eraldatze sozioekonomikoaren eredu arrakastatsu gisa proiektatzea ahalbidetu dioten erabaki eta proiektuak balioestea eta nazioartearekin partekatzea. Era berean, eredu horren bidez lortu nahi da gerora euskal gizartean eragina izango duten gaiak aztertzeko eta zabaltzeko proiektuak bultzatzea, gizartean berrikuntza eta aldaketa iraunkorra estimulatuz, horrela lagunduko baita herria beste errealitate sozial eta ekonomiko batzuetara eta beste gobernatze-eredu batzuetara irekitzea».

Laugarrena.– Estatutuetako 5. eta 6. artikuluek diotenez, fundazioaren egoitza Bilbon (Bizkaia) dago (Cardenal Gardoqui, 7, 4.a), eta batik bat Euskadin garatzen ditu bere jarduerak.

Bosgarrena.– Hasierako dotazioaren zenbatekoa 35.000 eurokoa izango da. Kopuru hori ordaindu dela agiri bidez jasota geratu da erregistro-inskripzioko espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak 37.1.c) artikuluan.

Seigarrena.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patronatukidea	Indarraldia
Lehendakaria	Juan José Ibarretxe Markuartu	2019ko maiatzaren 21a
Lehendakariordea	Amaia Agirre Muñoa	2019ko maiatzaren 21a
Diruzaina	Pablo Allende Villanueva	2019ko maiatzaren 21a
Idazkaria	Gorka Espiau Idoiaga (ez da patronatukidea)	
Bokala	Idoia Zenarruzabeitia Beldarrain	2019ko maiatzaren 21a
Bokala	Sabino Arrieta Heras	2019ko maiatzaren 21a
Bokala	Jon Azua Mendia	2019ko maiatzaren 21a
Bokala	Joseba Azkarraga Rodero	2019ko maiatzaren 21a
Bokala	Javier Chalbaud Rodríguez	2019ko maiatzaren 21a

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko bat erabiliz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari dagokio fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuan; eta Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoan.

Bigarrena.– Hartarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espedientea. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datuak eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa. Aplikatzekoak diren legeetan eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat etorrita eratu da fundazioa.

Ikusirik aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplikatu beharreko gainerako arauak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilboko (Bizkaia) «Fundación Agirre Lehendakaria Fundazioa» fundazioaren eraketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, gaurko datarekin eta F-358 zenbakiarekin, bai eta patronatuko hasierako osaera ere (patronatuko kideak zazpigarren aurrekarian aipatzen dira), Andrés M.ª Urrutia Badiola notarioaren aurrean 2013ko maiatzaren 21ean egiletsitako eraketa-eskrituran jasotako zehaztapenekin bat etorriaz (protokolo zenbakia: 747).

Bigarrena.– Fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 9a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.